

# Fontes

Linguae Vasconum

50 urte. Ekarpen berriak

euskararen ikerketari

Nuevas aportaciones al

estudio de la lengua vasca

Eñaut Etxamendiren obra  
narratiboaren ekarpena eus-  
kal poetika erruralari

ITZIAR MADINA

Argitaratzaileak / Editores

Ekaitz Santazilia

Dorota Krajewska

Eneko Zuloaga

Borja Ariztimuño



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernua

---

---

# Eñaut Etxamendiren obra narratiboaren ekarpena euskal poetika erruralari

The contribution of Eñaut Etxamendi's narrative works to rural Basque literature

---

ITZIAR MADINA  
IKER (UMR 5478)  
hizartxo@outlook.fr

---

JASOA: 2019/07/30 | BEHIN-BEHINEAN ONARTUA: 2019/10/03 | BEHIN BETIKO ONARTUA: 2019/12/12

---

---

---

#### LABURPENA

Eñaut Etxamendiren (Ezterenzubi, 1935) obra literarioak euskal erruralitatearen poetika berritzen duela: hara artikulu honek ohartarazi nahi lukeena. Euskal historiografia literarioan, etxamendiar obrak literatura errural autobiografikoaren iraganlekua erakusten du. Etxamendik errealismoz lantzen ditu topiko literario erruralak, denbora idilikoa sublimatzen du eta urratutako idilikotasunaren kontzientzia-hartze kolektiboa baimentzen. Ondorioz, narrazio etxamendiarrak zenbait aztergai irekitzen ditu euskal ikerketa literarioan, erruralitatearen gaia ohiturazaletasunetik deslotuz, ezagutzaren eta boterearen arteko harremana birpentsatzen lagunduz. Besteak beste, artikulu honek etnokritika literarioaren ekarpena erabiliko du baieztapenok argitzeko.

#### ABSTRACT

Eñaut Etxamendi (Ezterenzubi, 1935) managed to revitalise Basque rural literature: that's what this work would like to demonstrate. Etxamendi's writings show a new path in the treatment of rurality in modern Basque literature: the autobiographical outlook. Etxamendi's books are realistic when they deal with rural topics, they sublimate idyllic time and allow collective conscience to appear around the destroyed idyll. Therefore, Etxamendi's writings open up new research fields in modern Basque literature, dissociating rurality from traditionalism and permitting us to think about the relationship between knowledge and power. This work will explore Etxamendi's writing supported by ethnocriticism.

**Gako-hitzak:** Eñaut Etxamendi; poetika errurala; suntsitutako idilioa; literaturaren etnokritika.

**Keywords:** Eñaut Etxamendi; rural poetics; destroyed idyll; literary ethnocriticism.

## 1. Sarrera

Eñaut Etxamendiren (Ezterenzubi, Nafarroa Beherea, 1935) obra narratiboari leku gutxi egin izan zaio orain arte euskal literaturaren ikerketan (Madina, 2014). Alta, obra berezi honek euskal erruralitatearen poetika berritzen duela uste dugu eta horrela erakutsi nahi genuke artikulu honetan. Zein ote dira Etxamendiren obra literarioaren berezitasunak? Batetik, modernitateak XX. mendeko euskal jendarte nekazariaren baitara ekarritako aldaketak azalarazten ditu, gatazka sozialak, kulturalak, politikoak eta erlijiosoak islatuz. Bestalde, etxamendiar obraren gehiengoa nitasunean oinarritzen da. Euskal literaturaren historian erruralitatearen narrazio autobiografikoari ekiten dion lehenetarikoa da Eñaut Etxamendi, nekazari seme ikasi, apeztu gabe (nekez bada nekez) Belokeko frailetzeko eskolak uzten lortutakoa. Azkenik, Etxamendiren narrazioak euskal kulturaren aztarnak josten dizkio testuaren hizkuntzari eta dei egiten dio euskal herriaren (populuaren zein lurraldearen) memoria luze eta anitzari.

Euskal baserriaren gaiak *Peru Abarca* (1802) abiapuntu eta *Obabakoak* (1988) helmuga duen bide literario historikoa marrazten badugu, narrazio etxamendiarrak *geltoki* (Zaldua, 2002) berezi bat erakusten duela frogatu nahi genuke. Hasteko, geltoki horren berezitasunak aletuko ditugu: idazlearen biografia eta euskal literatur munduaren baitako bere kokalekua oroituz hasiko gara. Segitzeko, euskal eleberri ohiturazalearekin alderatuko dugu etxamendiar poetika errurala, bidenabar *Obabakoakek* jorratu zuen baserriaren errealismo magikotik bereiziz. Harago baina, Etxamendiren obrak *urratutako idilioa* (Bakhtine, 2004, 374. or.) ekai literario bihurtzen asmatzen duela erakusten saiatuko gara. Azkenik, etnokritika literarioaren argitan azalduko dugu etxamendiar narraziogintzak nekazalگو-testuinguru etnokulturalean botatzen dituela sustraiak: obra narratiboaren helburu estetikoaz batera, helburu etikoa ere bilatzen duela. Hain zuzen ere, frogatzen ahaleginguduko gara Etxamendiren obrak *etno-spekzioa* (Cnockaert, Privat & Scarpa, 2011) proposatzen diola literaturako euskal irakurleari.

## 2. Etxamendiren obra, geltoki berezia euskal literatura erruralaren historiografian

Munduko Bigarren Gerraren bezperan, Ipar Euskal Herriko Nafarroa Beherean jaio zen Eñaut Etxamendi, Ezterenzubiko *Menddiburria* etxeko nekazari-familian, Iratiko

aldean. Hain zuzen, haren aitonaren ahaide zen Luzaideko Juan Echamendi «Borddel» (1792-1879) bertsolaria. Etxamendiren amak kaier batean idatzirik zeuzkan Borddelen eta koplari ezezagunen beste hainbeste bertsu, eta askotan kantatzen bide zituen, bazkalondoetan nahiz beste, Eñaut Etxamendik aipatu zigun bezala (aurrez aurreko komunikazioa, 2013ko abenduaren 15a).

Sei urtetan osteomielitisak erasotu eta Etxamendi hiltzear izan zen. Bizi osoan pairatuko zuen hankako minetik eta aldi luzeak egin beharko zituen erietxeetan. Hamabi urtetan, aitamek Belokeko frailetxera bidali zuten, apezgai. 1947tik 1955era Belokeko eskolak segitu bazituen ere, Eñaut Etxamendik ez zuen apeztea onetsi. 1955etik 1959ra, bi karrera unibertsitario egin zituen batera, Nekazaritza Ingeniaritza eta Zientzia Politikoak, Okzitaniako Tolosan. Ikasketak bukatu eta Senegalera joan zen, Saint Louis ibaiaren inguruko nekazaritza garatzeko proiektu batean lan egitera. 1961ean irakas-kuntza kristauan irakasle-ofizioa hasi zuen Britainian, eta 1963an Euskal Herrira itzuli zen, Donapaleuko Jean Errecart lizeo pribatuan lanean aritzera.

xx. mendeko bigarren erdialdeko Ipar Euskal Herriko jendartea kontuan harturik, goraipa daiteke Eñaut Etxamendik ezagutu zituela industrializatu gabeko laborantza-eredua, osoki euskalduna eta euskaran alfabetizatu gabea zen ingurumen sozio-kulturala, Eliza katoliko boteretsuaren aroa, jendartearen sekularizazio-prozesua, Ongizatearen aurreko Estatua, Ipar Euskal Herriko abertzaletasunaren hasiera eta Indotxinako eta Aljeriako deskolonizazio-gerlak, 1968ko maiatza eta 1981eko frantses alderdi sozialistaren eta François Mitterrand lehendakariaren urteak.

Donapaleuko Jean Errecart lizeoan Eñaut Etxamendik Eñaut Larralde ezagutu zuen eta 1965etik hara elkarrekin kantatzen hasi ziren. Baina irakaskuntzaren eta kantagintzaren alboan, Etxamendik politika ere landu izan du, Enbata Ipar Euskal Herriko mugimendu abertzaleko kide goiztiarrekin batean. Ximun Haran, Jakes Abeberry, Christiane Etchalus, Jean-Louis Davant edo Daniel Landart ziren, besteak beste, Enbatako bultzatzaile. Garaziko eskualdean Manex Goienetxe zen militanterik ezagunena. Hain justu, 1963. urteko Aberri Eguna garrantzitsua izan zen Enbatarentzat, Itsasun, Ximun Haranek eta Julen Madariagak *Itsasuko hitzarmena* aitortu baitzuten, alderdia bilakatuko zenaren zedarri ideologiko-politikoak finkatuz.

Literaturari dagokionez, Eñaut Etxamendiren lehen ekoizpen literarioa 1964an agertu zen atalka, Piarres Lafittek zuzentzen zuen *Herria* astekarian. Anonimotasuna mantentzeko asmoa zuenez, Etxamendik hainbat izengoitiz plazaratuko zuen 1973ra arte; besteak beste, Rafael Intzaurreta, Rafael Zuhañeta edo Mikelau Ainerabelar. 1968an, Eñaut Etxamendik Irunberriko Literatur Saria irabazi zuen *Elurra zikindurik* ipuinarekin, eta 1987an Irun Hiria Literatur Saria *Gilentegiko Gilen* eleberriarekin. Mende Erdiko ibilbide literarioaren ondoren, hogeita hamar ipuin eta eleberrri baino gehiago argitaratu ditu, dela prentsan, dela argitaletxeetan, Ipar zein Hego Euskal Herrian. Gaur egun, Etxamendik idazten eta argitaratzen jarraitzen du, *Maiatz* argitaldarian nagusiki.

Euskal literatura modernotasunari heltzen zion bidean abiatu zelarik, Etxamendik hautu ezberdina egin zuen bere obra literarioari ekiteko. Hain justu, modernitateak desgindako Nafarroa Behereko jendeak, paisaiak eta bizimoduak deskribatzea lehenetsi zuen. Etxamendiren narrazioetako pertsonaiak ez daude hirian baina baserrian, ez dira

hiritar intelektual edo langileak baina nekazari edo artzainak, ez dira mundu sekularizatuan baina erlijiotasunean erroturik bizi. Bere obra literario osoan ez dago euskara batuan idatziriko ekoizpenik batere, ezen Eñaut Etxamendik Nafarroa Behereko euskalki arautugabea idazten baitu. Hau da, XIX. mendeko euskal literatura ohiturazalearen ildoan lerroka daiteke Etxamendiren obra literarioa. Horiek horrela, baina, obra etxamendiarrak Euskal Herri eta euskal kultura berpiztu sendoak defenditzen ditu, herriaren hezkuntza eta kontzientzia hunkitu nahi ditu, abertzaletasunak landu mitoetan sinesten du eta bere mitografia literarioa proposatzen du. Beraz, halaber, XX. mende erdialdeko euskal literatura berritzailearekin batera daiteke. Horregatik diogu Etxamendiren obra literarioa euskal literatura erruralaren bi aroren arteko iraganbidean dagoela.

### 3. Eleberri ohiturazalearen eta *Obabakoaken* artean

Euskal literaturaren historian baserriaren gaia baserritar figura laudagarri baten bidez azaltzen da, 1802an, *rusticus sapiens* den Peru Abarca pertsonaia literarioarekin. Juan Antonio Moguelek Peru Abarcaren figura arketipikoa balore zehatzetan landatzen duela badakigu: umiltasuna, zintotasuna, langile prestutasuna, euskaltasuna eta erlijio kristauarekiko leialtasuna. Peru Abarca etxeko jauna egundaino eskolarik hunki gabea da, «euskararen oihanetik atera gabea» eta «Basarteko katedratikoa», omen. Artifiziorik gabeko euskara ahoan, «harro ta apaindu» (Moguel, 1981 [1881], 44. or.) den, «haragi minberak» dituen Maisu Juani *Landeta* bere etxeko atea zabalduz, euskal jendarte baserritarraren ateak zabaltzen dizkio Peru Abarcak. Hiriaren eta nekazal-eremuaren arteko oposaketan, narrazio Mogueldarrak alde didaktikoa hartzen du, eta segitu beharreko baserriaren ereduak seinalatzen.

*Peru Abarcaren* baserriko munduaren tratamendu literarioaren gibelean Moguelen ikuspegi ideologikoa azaltzen da, honek Jon Juaristiren (1998, 34. or.) ustez «erruralismo fuerista» bultzatzaile zuela. Baina XVIII. mendeko euskal apaiz moralisten bidean lerrokatzen den Moguelena ez da kasu bakarra, ez bada lehenbizikoa euskal literaturaren historian. Jean-Pierre Duvoisinek (1810-1891), Txomin Agirrek (1864-1920), Jean Barbierrek (1875-1931), Resurrección María de Azkuek (1864-1951), baita ideia aurrerakoen aldean sartzen zen Jean-Baptiste Elissamburuk (1828-1891) ere, euskal baserriaren eta baserritarraren bizimodu arkadikoa azalaraziko dute, hiriari, garapenari eta aldaketari kontrajarria. Honela, «la eterna dialéctica de contrarios» (Berriochoa, 2011, 134. or.) gauzatuko eta finkatuko da euskal literaturaren topikoetan.

XX. mende hasieran Lizardik, Aitzolek, Lauxetak edota Orixek landu zuten Pizkundearen bortizki itzali zen 1936an Hego Euskal Herria gerla zibilak jo zuenean. Eleberri erruralaren ildo narratibo ohiturazalea XX. mendean izarkirik egongo zen eta gerra ondoko euskal idazleek haien aldetik iraganera begira idatziko zuten, eredu zaharkituetan harrapatuak:

[...] la compacta ortodoxia de esa «arcadia» de abarkas y toque de ángelus, txistu y tamboril que sigue siendo [1936eko gerla ondoko euskal literaturaz ari da] una literatura anclada

tozudamente en un costumbrismo románticamente ideologizado [...] La literatura vasca, cuando, en el principio de los 50 y a duras penas reinicia su andadura, lo hace desde una voluntad claramente restauracionista y manteniendo una estricta fidelidad a la ortodoxia ideológica y literaria de la etapa anterior (Lasagabaster, 1984, 429. or.).

Uler daiteke, beraz, eleberri erruralaren imaginario ideologizatu, eleberri ohiturazalea eta euskal naziotasunaren aldarria elkarren ondoan euskal literaturan baitaratu zirela, eta nagusitu. Ortodoxiaren aurka, 1960ko hamarkadako euskal literatura berriak modernitatea jorratuko duenean berriz, modu ikonoklastan eta aurretik egon zen tradizio literario atzerakoia arbuatuz egingen du, honek ekar zezakeen onura literarioari jaramonik egin gabe:

Hacer literatura en euskara es una forma de compromiso, no ya estético, sino ético y político a un tiempo, con la propia identidad individual y colectiva. [...] La nueva novela surge no ya sin apoyatura en la tradición, sino contra ella. Sobre todo, contra la visión del mundo dualista, idealizada e ingenua que de la realidad vasca venía dando la novela costumbrista. Esa de algún modo inevitable «iconoclastia» de la nueva novela no ha respetado siquiera algo que en la tradición narrativa anterior era sin duda una aportación válida a la formación de una prosa narrativa vasca: desde una estética realista, la expresividad y la plasticidad de las descripciones, el dominio y la viveza del diálogo, la incorporación del lenguaje coloquial, etc [...] Naturalmente, este esfuerzo de creación de una prosa narrativa aparece mediatizado por una cuestión lingüística previa: purismo/popularismo, de la misma manera que en los escritores actuales esa mediatización se expresa como alternativa batua/dialectos (Lasagabaster, 1984, 429-430. or.).

Aurrekari horiek tarteko eta Ipar Euskal Herriko historia zein geografia literario berezietan abiatuko zuen bere sorkuntza literarioa Eñaut Etxamendik. Eleberri ohiturazalearen eta Etxamendiren narratibaren baserriko imaginarioak konparaturik, osagai formalak eta estetika literarioa kontuan harturik, bi ereduak parezkatzeko aukera agertzen zaigu:

**1. taula.** *Ohiturazale eta etxamendiar* ereduen baserriko imaginario literarioen konparaketa formala

Osagai formalak	Eleberri ohiturazalearen baserriko imaginarioa	Etxamendiren baserriko imaginarioa
Ohiturazaletasuna		
Kutsu ideologikoa		
Doinu didaktikoa	BAI	BAI
Kristau-fedea		
Euskal nortasuna		

Osagai formalak	Eleberri ohiturazalearen baserriko imajinarioa	Etxamendiren baserriko imajinarioa
Bukolikotasuna		
Doinu moralista	BAI	EZ
Idealizazioa		
Patriarkalismoa		

Azpimarragarria da eleberri kostunbristak zein etxamendiar narratibak baserriaren gaia hartzen badute ere, Eñaut Etxamendiren imajinarioak ez darabiltzala eleberri erruralaren imajinario tradizionalari leporatzen zaizkion osagai formaletako batzuk. Hain justu, etxamendiar irudimena ez da bukolikotasunean, doinu moralistan, idealiazioan ez patriarkalismoan ere sustraitzen.

**2. taula.** *Ohiturazale eta etxamendiar* ereduaren baserriko imajinario literarioen konparaketa estetikoak

Osagai estetikoak	Eleberri ohiturazalearen baserriko imajinarioa	Etxamendiren baserriko imajinarioa
Estetika errealista		
Deskribaketen adierazkortasuna	BAI	BAI
Elkarrizketen bizitasuna		
Lagunarteko hizkuntza		

Azpimarragarri da, Lasagabasterrek (1984, 429-430. or.) zehazten duenaren kontra, Etxamendiren narratiban ez dela euskal literaturan 1960ko hamarkadan gauzatu zen tradizio literarioarekiko erabateko apurketarik gertatzen. Hau da, Etxamendiren narratiba bi modutan hedatzen da: euskal tradizio literarioarekiko urrundurik hainbat osagaitan (lehen taulan altxatzen genuen bezala); haatik, fidelki beste zenbaitetan. Azken honetan ohargarri da Etxamendiren narratziogintzak tradizioak jorratzen zuen hizkuntza literarioaren aberastasuna eta malgutasuna mantentzen jakin duela, estetika errealista, deskribaketen adierazkortasuna, elkarrizketen bizitasuna eta hizkuntza kolokiala bezalako osagai estetikoak erabiltzen dituenaz.

Beraz, ezaugarri formal eta estetikoek bereizten dutelako, Etxamendiren narratziogintzak euskal eleberri ohiturazalearen mugak gainditzen ditu. Aldi berean, aro kronologikoak ziklo baten amaieran jartzen du, euskal literatura garaikidearen hasieran, hain justu. Etxamendiren hautu literarioa bazterreko suertatzen da 1960ko hamarkadako Euskal Herrian Paristik, Bruselastik, Bilbotik; hots, hiritik; uhain literario berritzaileak datozela Miranderen, Álvarez Enparantzaren, Arestiren eskuetatik lehenik eta Saizarbitoria, Urretabizkaia, Lertxundi, Sarrionandia, Atxaga eta besterenetik,



ondoren. 1989an ordea, *Obabakoak* euskal gailur literarioa bihurtu zen zer eta base-ri-giroaren eta errealismo magikoaren erabilpen literarioari esker. Nola uler daiteke hori? Erruraliteari ekitekotan, euskal literatura garaikideak lehentasuna ematen dio baserriaren geografia lausoari eta errealtatearen ihesbide metaforikoari. 1964az geroz, haatik, Etxamendiren narrazio gintzak zama autobiografiko eta errealista nasaia lantzen ditu, bidenabar euskal poetika erruralean sakonduz.

#### 4. Etxamendiar poetika erruralaren errealismoa

XX. mende erdialdeko Ezterenzubiko bere sorterrian Eñaut Etxamendiren gaztaroko denbora biografikoa guztiz idilikoa izan zen (Bakhtine, 2004). Zauri intimoen narrazio literarioaren bidez, bere obra narratiboak jendarte oso baten indar-joko sozio-politiko-kultural eta erlijiosoaren deskribapena eskaintzen du, bai eta idazkera autobiografikoan munduarekiko haren ikuspuntua ere: baserriaren galeraren eta euskal kulturaren aitortza soziala eskasaren salaketa, frantses kolonialismoaren gaitzestea, Enbata mugimenduaren baitako engaiamendua eta Belokeko fraide-etxean jasandako jazarpen morala eta psikologikoa aletzen ditu, besteak beste. Etxamendiren baliabide literario nagusia errealismoa da, hau nabarmentzen dela mendiko paisaiaren deskribaketan, pertsonaien ekintzetan nola haien arteko elkarrizketetan.

Etxamendik paisaiaren deskribapen literarioa oroitzen enpirismotik lantzen ohi du, toponimiari berebiziko lekua utziz. Gogoan duen gazte-denborako ingurunearen deskribaketak ibilbide topografikoa eta neurtua eskatzen dio. Demagun jarraian, Antsoloko bordara heltzeko bideak:

Gure etxeko artzain-etxola Erreta Gainen zen, etxetik orentto baten bidean gorenaz. Toki zabal iraztortsu batean, bostpasei elhorri-xuri ondoren hegalean. Gorago «Arraukasko» eta «Darte», gohorago «Athaburu», eta goren gorena Erroizate. Beherago «Erreta» eta «Lopebeltz». Aintzinean «Antsolo»-ko olaldea bere errearen kantuan, «Attondo»-ko erroitzen eta «Agerre Saroko» oihan ziztur eta hegi zorrotzen azpian. Orreaga alderakoan, eskuin aldean «Iropil», «Urkulu», «Minasarro» eta beste mendi urdin, oihan ilun eta potxa xuri (Etxamendi, 2011b, 29. or.).

Aurreko deskribaketak ematen duen lehen argitasuna Etxamendiren Ezterenzubiko *Menddiburua* sortetxetik Antsolora iristeko behar den denbora da. Ondoren, Iratiko oihaneko hamalau leku-izen agertzen dira, horietako zenbait ezagun, *Iropil* nola *Urkulu* edota *Orreagako* herria. Tartean, paisaiaren landaretzaz abisatzen da, iratzeak eta elorri-zuriak Antsoloko ezaugarriak baitira. Azkenik, *erroitza*, *ziztur* eta *potxa* terminoek geografia fisikoko nozioak adierazten dituzte: amildegia, errekastoa eta leize-zuloa, hurrenez hurren. Zergatik ote, derrigorrezko xehetze orografiko hau? Badaiteke esatea Etxamendi idazleak Etxamendi artzain-semblearen zentzuetatik idazten duelako gertatzen dela. Harentzat, Antsolora ez da mapa batek objektiboki seinaturaluriko bidetik heltzen, baizik eta urratsen zein ere gorputzaren indarretik eta inguru-

menaren behaketatik. Harago, Antsolora joatea ez da mendi-ibilbide hutsean abiatzea, bai aldiz artzain-bizimoduaren baitako mugimendu esanguratsua: artzain-etxolara udaberritik aurrera joan ohi da, uda iragatera. Beraz, narrazio etxamendiarrean paisaia ez da ekonomia narratiboaren apaingarri xumea. Aitzitik, mendiko nekazal-zibilizazioaren aztarna biziak nabari zaizkio paisaiaren deskribaketari.

Aurrekoaren segidan, pertsonaien ekintzak errealismo ia dokumentalaz azaltzen dira Etxamendiren narrazioetan. Iratiko soroetan uda soilik ez, baina negua ere iragaten duen Migel artzainaren istorioa, kasurako. Migel Hartxilondon dago; bestela erranik, mila metro inguruko goratasunean. Artzainen udako egonlekua bada, Hartxilondo arriskutsu bihurtzen da neguan, botatzen dituen elurteak direla eta. Horregatik, Migelen egoera errukigarria da, lurrik gabeko artzainen miseriaren erakusle:

Artzain xahar hori etzen beldur negu-neguan horrat gaindi, hain gora, elur baten hirriskuan jiteko, sorhoz-sorho: erreka ondoetan sorhoa heldu baita neguan, jiten dira Egurgin barna Erruzateraino sorhoka. Migelek holetan bazkak bilatzen zituen merkerik bainan hirrisku haunditan (Etxamendi, 2009a, 69. or.).

Ulertu behar da «bazkak bilatzea» lurrik gabeko artzainen urteroko kezka izaten dela, hain zuzen, ardien alhapidea lur-jabeei alokatzea. Iratin neguan egonez, Migel artzainak lur komunalen alhapideak kitorik lortzen zituen, segurki. Artaldearekin «sorhoz-sorho» ibiltzea lor zezakeen erreka bazterrean egonez, ezen oihaneko parte hori ez baita elurrez estaltzen zeharo. Haatik, haren eta artaldearen bizia jokoan ematen zituen, dudarik gabe.

Errealismo etxamendiarraren aipamena bukatzeko, hona hemen narrazio etxamendiarraren elkarrizketen bizitasunaren eta hizkuntza kolokialaren erabilpenaren adibide bat:

—Errak Martin ehiza mensten hi holako aruaikin? Nauka bihar mezaat juaiteko tenoria gabe zepotan zeait atzemanik izain dela!?

—Ni-taita... (Etxamendi, 2009a, 150. or.).

Bi anai ihiztarien arteko solasa altxatzeko unean, Etxamendiren hizkuntza literarioak errealismo-ahalegin handiak egiten ditu. Euskalkian aritzeaz gain, elkarrizketen grafia idazkera fonetikoan ekarri ohi du. Bere obra literario osoan zehar, euskara hizkuntza literarioaren erabilera ez akademikoa, guztiz araugabea egiten du Etxamendik. Bestalde, bukolikotasuna edota ihesbide magikoa atzendurik, narratiba etxamendiarra errealismoan barneratzen da. Bestela erranik, Etxamendiren hautu estetiko errealistak modu dialogikoan elkartzen ditu testuinguru historiko, kultural eta sozialak. Mendiko ingurumenaren, laborari-zibilizazioko jendeen bizimoduaren eta denbora ziklikoaren tratamendu literarioa mundu horretaz daukan ezagutzatik bideratzen du. Horren oinarrian dago, baina, etxamendiar narratibak nola sublimatzen duen denbora idilikoa.

## 5. Denbora idilikoaren sublimazioa etxamendiar narraziogintzan

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, Ipar Euskal Herriak industrializatu gabe segitzen zuen eta bertan mekanizatu gabeko nekazaritza nagusi zen. Azken horrek, ordea, funtsezko aldaketak jasanen zituen urte laburrez. Orduan, Bakhtinek kontzeptualizatu zuen *denbora folklorikoa* (Bakhtine, 2004, 351. or.) desegin eta une historiko eta kultural berria gauzatuko zen Ipar Euskal Herrian. Hain zuzen, Etxamendiren narraziogintzak espazio eta denbora idilikoak sublimatzea lortzen du, lirismoaren eta patetismoaren erabilpen literarioari esker.

Lirikotasuna paisaiari ala landarediari loturik dator askotan, pertsonifikazioaren eskutik. Ondoko pasarte honetan, adibidez, Dartemaldako parajeak mendixka eztiak dira, «andere-bular» batekin bateragarriak. Munduaren ikuspegi antropomorfikoa nabari zaio idazkerari, emetasun ia mistikoa nagusi:

Munho polit bat zen, biribil eta gorraile matela goihena xuhail lepondo bat bezala, eta goizkerri aldetik oihana besape bat bezala, oixe andere-bular legun kuttuna! Mendebaleetik soegin eta Pagaltzetan zuen goi-laurdena, arpegi irritsu emazte ozena! Sortaldetik begira, Oriune beltzaren pagadoi urruna, zer izarbel gau-birjina! (Etxamendi, 2011a, 9. or.).

Narratiba etxamendiarrean Ezterenzubiko ingurumenak betetasunaren sentsazioa ekartzen du, izate idilikoak hain zuzen, naturarekiko lotura organikoa baitauka:

[...] l'intégrité de l'existence idyllique, son lien organique avec la nature, la mise en valeur du travail idyllique non mécanisé et enfin, les objets idylliques inséparables du travail personnel, indissolublement liés à lui et à l'idylli que vie quotidienne (Bakhtine, 2004, 375. or.).

Adibidez, eguneroko biziaren oroitzapenetan, Eñaut Etxamendik jasotzen du Izpurako erietxetik osteomielitis-gaitzak jo eta heriotzatik libratu ondoren, amak nola ekarri zuen etxera. Lehenik, amak orgatto batean garraiatu zuen seme enbalditua Izpuratik Ezterenzubiko plazaraino. Handik asto gainean eman zuen semea eta amak oinez ekin zion mendian gorako xendrari. Etxamendiar narrazioan amaren akidurak, neguko arratsak harturiko mendi elurtuak eta astoaren urrats mantsoek bat egiten dute modu integralean:

Mendiak xuritiak. Erreka azantzak. Intzaur-ondo batian beliak... ilhuna. Astua maldari gora goiti-goiti, Ama huñez elhurrian. Gañeko bixkarreratu-ta Ama elhurrian etzan zen... Nolako hatsa zien ohoit niz. Astua gelditu zen. Huntzak hurubiaka, Larre-Zokotik.

Oihan artetik etxeko argia ageri zen, astuak orrua egin zien, etxetik xakurra erhausiz hasi zen. Ama jeiki zen «hara, hobeki nuxu, guazen fite astua! Etxian su bat ederra eta gaztañak izain txu. Ixtantian Eguerri...» (Etxamendi, 2009b, 24. or.).

Denbora iragana doinu patetikoari lotzeko baliabide narratiboak berebiziko indarra hartzen du narrazio etxamendiarrean, oroz gainetik denbora biografikoa eta denbora

kolektiboa elkartzen dituelarik. Zentzu horretan, euskalkiaren erabilpena ezin zilegiagoa da, kolektiboaren nortasuna berresten baitu. Hona adibidetzat Etxamendiren aita zenaren gazte-denborako tragedia:

Zortzi ziren, hemezortzi hark eta azken biek bi urte, aita ta ama, eta amatxi. Hameka etxean. Leizar ondo zaharraren itzalean zuten egongia. Hark oraino bizarra beratzen mateletan, doi-doia esperantzan... Gerlarat joateko manua... [...] Kanoiaren orroa! Mutikoak herremelka lohian ikasten... gerlan ikasten. Zer mintzaira! Nolako arpegi murrizak! Denak kexu, hitzen erdiak ez ulertzen, herioa, gorputzak... Larrazkena etorri zen, Garazitik telegrama:

«Ama arrunt gaizki duk. Haugi.»

Gau bat eta egun bat treñan.

«Atseko treñatik landa, [aita mintzo, oroitzapenez] Donianetik Eihalarrerat emazte bat bidean... Erruzaterako naban...

—Oh! Xu permisionez!

—Ba, ba.

—Etxitut ezautzen Ezteintzitarra xirare seurrenik?

—Ba, ba, hala nuxu.

—Soixu! Atzo Ezteintzuin izigarria ba'uxu gertatuik.

—Ze?

—Baa, emazte bat hil izan duxu, zortzi haurren ama...»

«Zangoak enitioxun higi lekiain gaiñian, ezin ibili, ezin hurratsik in...» (Etxamendi, 2011a, 112. or.).

Goiko adibidean Lehen Mundu Gerlara soldadu bidali zuten aitaren samin intimoa neurritz gaintzen da. Ondorioz, hau norbanakoaren ezbearra izatetik alor sozio-kultural, politiko eta historikora hedatzen da. Denbora idilikoaren ezaugarria bere osotasunean baitatza:

Ce temps est totalement un. Cette unité totale se revèlera sur le fond des perceptions ultérieures du temps dans la littérature (et dans l'idéologie en général), quand le temps des évènements personnels, intimes, familiaux s'individualisera et se détachera du temps de la vie historique collective de l'ensemble social, quand apparaîtront toutes sortes d'échelles de valeur pour évaluer les épisodes de la vie privée et ceux de l'Histoire (qui se trouveront sur des plans différents) (Bakhtine, 2004, 353. or.).

Seinalatu dugu Eñaut Etxamendik denbora idilikoa edo folklorikoa bizi izan zuela gaztaroko bere denbora biografikoan. Baina euskal literaturaren historiografian Etxamendik landutako poetika erruralak kokagune berezirik badauka, hori denbora idilikoaren hausturaren kontzientzia hartzetik eta horren narratibizatzetik dator. Hots, narratiba etxamendiarrak nekazal zibilizazioaren desagerpenaren berri ematen badu, urradurazko

bere bizipen biografikotik abiatzen delako du egiten. Euskal poetika erruralak ikuspegi autobiografikoa irabazten du, bai. Baina Etxamendiren obra narratiboaren hedadura gutxietsenezake, oinarrian duen testuinguru etnokulturalaren garrantziaz jabetzen ez bagina. Horren iruzkintzeko tresneria kontzeptualak beharrezko ditugunez, literaturaren etnokritikari heldu diogu.

## 6. Erruralitatearen poetika etxamendiarra etnokritikaren argitan

Etxamendiren narratibari etnokritika literarioak (Cnockaert, Privat & Scarpa, 2011) proposatzen duen ariketa erreflexiboa aplikatzen badiogu, testuaren eta idazleak ehundutako eraikuntza sinbolikoaren artean dagoen harremana azalaraziko dugu. Izan ere, etnokritikak testuaren etnokulturari jartzen dio arreta, ekoizpen literarioa sistema esanguratsutat joz eta horren baitako sinbolismoaren etnologia eginez. Antropologiaren edo folkloreak eremuak hunkitzen baditu ere, kritika literarioak dio gaina hartzen:

Certes, un certain nombre d'anthropologues ou de folkloristes ont pris la littérature comme « terrain », aux États-Unis, comme au Canada ou en France. La problématique de l'ethnocritique est toutefois bien différente. Elle se présente et s'assume pleinement comme une critique littéraire ; c'est en effet le fonctionnement même de l'œuvre (et du champ dans lequel elle est produite, transmise et reçue) qu'elle se propose d'étudier du point de vue d'une anthropologie du symbolique, même si c'est bien l'originalité propre à l'alchimie du texte littéraire, sa poétique et sa *culture* qu'elle espère approcher (Cnockaert *et al.*, 2011, 3. or.).

Bestela erranik, literaturaren ikerketa etnokritikoak ez du folkloreak eginbiderik. Ez du iraganzaletasunik; bai, aldiz, obra literarioaren sinbolikotasunaren antropologia edo testu literarioaren *poetika eta kultura* agertaraztea xede.

Bada, etnokritika gidari, har dezagun etxamendiar narratibaren idilikotasunaren topikoetan funtsezkoa den denboraren gaia. Testutik kanpoko ingurumen etnokulturala finkatzen duenez, horren erabilpen literarioari eta ondorioz, esanahi etnokritikoari jarriko diogu arreta. Zibilizazio nekazariaren denbora idilikoak espazioarekin duen harremana ezaugarria denez, Etxamendiren obra narratiboaren *kultura* ulertzeko, munduaren ikuskera arkaikoari neurria hartu behar zaio. Etxamendiar narratziogintzak «kronotopia literarioaren eta bizitako denboraren eta espazioaren errepresentazio sinbolikoak» (Drouet, 2009, 18. or.) lantzen ditu, espazioak iraganaren memoria salatzen baitu. Kronotopo memorialak aktibatuz, etxamendiar narratibak xede sinbolikoa du heriotzaren kontra borrokatzea:

Le territoire [...] *contient* l'histoire des hommes qui l'ont fait et en vivent. Tacitement, il la narre ; les Anciens s'y accordent, et la verbalisent. Les jeunes apprennent d'eux que le territoire *est* récit. [...] Un territoire implique mémoire longue [...] il formule une intention symbolique, un projet, exige une invention incessante. Il lutte contre la mort (Zumthor, 1993, 79-80. or.).

Etxamendiren obra narratiboan Ezterenzubiko ingurumenak bertako komunitate nekazariaren historia *edukitzen* du bere baitan, eta iraganaren kontraera bera *da*. Ondorioz, atzokoa eta egungoa, hilak eta biziak, ingurumena eta memoria etengabe erkartzen dituenean, narratiba etxamendiarrak ahazturaren aurka altxatzeko beharra erakusten du. Ohargarri da kondenaturik dagoen mundu-ikuskerak dela, espazioaren memoria biziartzeko asmaketarik sortu ezean. Hitzik, xede sinbolikorik ezean mehatxaturik dagoen testuinguru etnokulturalaren hauskortasunaz oso konziente dago Eñaut Etxamendi. Eta horrela ulertzen da bere obra narratiboari darizkion garrasi elkorra eta oldarrerako griña.

Gehiago dena, Etxamendik errealismoz egiten dituen paisaia, bizimolde eta pertsonaien deskribaketak helburu estetikoa izan badute, eta lortzen dute. Baina Jean-Marie Privatek (1995, 81. or.) azpimarratzen duenez: «l'ethnoculture du texte fait retour sur l'ethnoculture du lecteur». Testu literarioak etnokultura agertzen duenean, horrek irakurlearen etnokulturaren eragiten du. Zentzu horretan, etxamendiar narraziogintzak euskal zibilizazio nekazari errautsiaren etnokulturatik dei egiten dio irakurleari, obra literario eragilea proposatuz, euskal irakurleak bere buruaren nola bere kultura-ingurunearen baitarako begirada bota dezan. Hortik eratorriko da idazleak proposatzen duen irakurlearen *etno-spekzio* saioa (Privat, 1995, 81. or.), hainbat galderaren bitartez: iragan idiliko itzaliaren memoria nola mantendu ote? Nork iraunaraziko ote eta nola? Zer asmaketa sinboliko berri euskal ingurunearen memoria ulertzeko? Euskal nekazari xeheak desagertu ziren bezala, euskal kultura xeheak desagertu behar ote du? Horren aurrean oldartu behar ote da eta zer helbururekin ote borrokatu?

Etxamendiren narraziogintzak komunitate hautsiaren testuinguru kulturala modu errealistan jasotzeko hautu kontzientea egiten du, suntsipenaren aurrean mitografia alternatiboak (Nandy, 2007, 33. or.) gauzatzeko asmo literario gardenari ekinez. Horrela, etxamendiar obrak historikoki ahotsik gabe geraturiko nekazari subalternoaren tragedia sistematizazio sinbolikoan narratibizatzea lortzen du. Handik, etxamendiar obra narratiboaren irakurketa etnokritikoak urrututako idilikotasunaren kontzientzia-hartze kolektiboa baimentzen du. Horrela, beraz, osagai berriak aberasten du euskal literatura erruralaren historiografia. Ohiturazaletasunak ikuspegi ideologiko kontserbatzailea erantsi zion baserriaren topos literarioari, euskal nortasun abertzalearen bila. *Obabakoakek*, bere aldetik, zibilizazio errautsiaren errealitateak dakarren gordintasunari ihes egin zion, fantasiaren baliabide literario zirrargarrian babestuz. Etxamendiren poetikak errealismoz eta lekukotasun partekatua emateko asmoz ekin zion, gogoeta kolektiboa helburu.

## 7. Konklusioa

Ohargarri da Etxamendiren poetika erruralak euskal literaturaren *barne-komparatismoaren* (Casenave, 2012, 110. or.) ikerbidea urratzeko mugarri sendoa markatzen duela. Osagai nagusiak dauzka baztertuta gelditu zen zibilizazio nekazariaren lekukotasun zuzena, horren memoriaren biziartzeko nahikeria, eraikuntza sinbolikoaren xedea eta aniztasun linguistikoaren ezaugarria. Atxagarena ez bezala, Etxamendiren poetika errurala ez fantasian, ez errealismo magikoan baina bai enpirismoan, barnerako begi-

radan eta zapalketaren gaitzespenean oinarritua dago. Etxamendirenean joanak betiko joan dira eta magiaren ez arrazoinamenduaren ertzean den lausotasunaren sentsazio aringarrik ez dago. Bai, ordea, patu gordinaren, tragediaren pisu eta zama bete-beteak edo Paul Ricœuren (2000, 599. or.) hitzetan, «la véhémence ontologique du discours sur soi-même». Ama hilik, zazpi anai-arrebak bat bestearen ondotik Ameriketara lanera alde eginik (oroit Etxamendi bera Senegalera joan zela nekazal-ingeniaritzan aritzeko), sortetxea «xori-kafia zahar bat abandonatuik» (Etxamendi, 2011b, 14. or.) bezala gelditzen dela, bertan gelditzen den aita zahartuaren (iraganaren lekuko isilaren) bakardadea, nork jasan? Historiak (kapitalismoak ekarritako bizimolde berriak) idiliotik haizatu bazituen haizatu, laborari haiek bizitako injustiziaren sentsazioa nola gaindi? Etxamendiren poetika erruralari onartezinaren aurreko garrasia dario.

Badugu uste Etxamendiren poetika erruralak ezagutzaren eta boterearen arteko harremana birpentsatzen laguntzen duela. Zentzu horretan diogu narratiba etxamendiarraren azterketa etnokritikoak euskal literatura-ikerketen berezitasun zenbait gainditzen eta berritzen laguntzen ahal duela. Adibidez, euskal mundu errurala izate kulturadun osotzat joz, zilegibakotasunetik edota estigmatizaziotik kanpo utziz. Imaginario erruralak euskal irakurlearengan nolako oihartzuna duen bestek beste, euskal identitatearen eta honen egituraketaren gaia zabaltzen du. *Aurrerapena*, *arrazionalitatea*, *garapena* eta antzeko kontzeptuak lehenetsi dira aurrekoak gaitzetsiz, ez bairik ia batere gabe. Gure ustez, Eñaut Etxamendiren poetika erruralak geure buruari galdetzen dio, jende gisa, herri gisa, kultura eta literatura gutxitu gisa, diruditen bezain baketsuak ote diren gure memoriak.

## Erreferentziak

- Bakhtine, M. (2004). *Esthétique et théorie du roman*. Paris: Gallimard.
- Berriochoa, P. (2011). «Panchiku», un baserritarra de comienzos del siglo XX. Un acercamiento hacia la cosmovisión y la vida cotidiana del labrador guipuzcoano. *Sancho el Sabio*, 34, 105-134.
- Casenave, J. (2012). *Euskal literaturaren historiaren historia. Gurea nola konda?* Donostia: Utriusque Vasconiae.
- Cnockaert, V., Privat, J. M. & Scarpa, M. (2011). *L'ethnocritique de la littérature*. Québec: Presses de l'Université du Québec.
- Drouet, G. (2009). Les voi(e)x de l'ethnocritique. *Romantisme*, 145, 11-23. <http://www.cairn.info/revue-romantisme-2009-3-page-11.htm> helbidetik eskuratua.
- Etxamendi, E. (2009a). *Idazlanen bilduma I*. Baiona: Maiatz.
- Etxamendi, E. (2009b). *Idazlanen bilduma II*. Baiona: Maiatz.
- Etxamendi, E. (2011a). *Idazlanen bilduma IV*. Baiona: Maiatz.
- Etxamendi, E. (2011b). *Idazlanen bilduma V*. Baiona: Maiatz.
- Juaristi, J. (1998). *El linaje de Aitor* (2. argitalpena). Madril: Taurus.

- Lasagabaster, J. M. (1984). Literatura y vida literaria. In J. Intxausti (arg.), *Euskal Herria, errealitate eta egitasmo* (427-433. or.). Donostia: Jakin.
- Madina, I. (2014). Etxamendi: urradurak sortu zuen idazlea. *Euskonews*, 688. <http://www.euskonews.com/0688zkb/gaia68804eu.html> helbidetik eskuratua.
- Moguel, J. A. (1981 [1881]). *Peru Abarca*. Durango: Gerediaga Elkarte.
- Nandy, A. (2007). *L'ennemi intime. Perte de soi et retour à soi sous le colonialisme*. Paris: Fayard.
- Ricœur, P. (2000). *La mémoire, l'histoire, l'oubli*. Paris: Seuil.
- Zaldua, I. (2002). *Obabatiko tranbia. Zenbait gogoeta azken aldiko euskal literaturaz (1989-2001)*. Irun: Alberdania.
- Zumthor, P. (1993). *La mesure du monde*. Paris: Seuil.



# Aurkibidea / Índice

- 11 Aitzinsolasa
- 13 Prólogo
- 15 Testu-corpusen informazio morfosintaktikoaren etiketatze automatikoa  
hizkuntz ezagutzan oinarrituz: zenbait arazo, hainbat erronka  
ITZIAR ADURIZ, JOSE MARI ARRIOLA
- 31 Bertsolaritzaren genealogia subalternoak  
LUZIA ALBERRO, K. JOSU BIJUESCA
- 47 Euskal hiztun berri gazteak muda-prozesuan: ekintza-ikerketa baten  
behinbehineko emaitzak  
ESTIBALIZ AMORRORTU, ANE ORTEGA, JONE GOIRIGOLZARRI
- 63 Garaziko euskararen azterketa diafasikoa  
ALEXANDER ARTZELUS MUXIKA
- 81 Berridazketak Sarrionandiaren poesian eta Saizarbitoriaren *Egunero hasten  
delako* nobelan: hurbilpen genetiko bat  
MIKEL AYERBE SUDUPE
- 95 Somorrostro, mendebaldeko euskararen muga  
GOIO BAÑALES, MIKEL GORROTXATEGI
- 113 Euskara sasoian? Euskararen sozializazioa Gasteizko  
pilota-elkarte batean  
IÑIGO BEITIA
- 127 Euskal hiztun natiboak, ez-natiboak eta hitanoa  
GARBIÑE BEREZIARTUA ETXEBERRIA, BEÑAT MUGURUZA ASEGINOLAZA
- 141 Lingüística Histórica: estado actual  
LYLE RICHARD CAMPBELL
- 163 Lenguas y sociolingüística en el interior del País Vasco en el siglo XIX:  
testimonios del Archivo Zavala  
BRUNO CAMUS BERGARECHE, SARA GÓMEZ SEIBANE

- 177 Les verbes psychologiques du basque : typologie et diachronie  
DENIS CREISSELS, CÉLINE MOUNOLE
- 195 Testu-generoaren irudikapena eta erabilera ahozkoaren  
didaktikan  
LEIRE DIAZ DE GEREÑU LASAGA, ITZIAR IDIAZABAL GORROTXATEGI, LUIS MARI  
LARRINGAN ARANZABAL
- 209 Zentsura-ikasketak gaur egun: aplikazioa euskal literaturan  
AMAIA ELIZALDE ESTENAGA
- 223 Azentuazioaren eremu sintaktikoak mugatzen  
ARANTZAZU ELORDIETA
- 237 Sintaktikoki etiketatutako euskarazko corpus historikoa  
eraikitzen  
AINARA ESTARRONA, IZASKUN ETXEBERRIA, RICARDO ETXEPARE, MANUEL  
PADILLA-MOYANO, ANDER SORALUZE
- 253 Ahozkotasanaren didaktika ikuspegi dialektikotik abiatuta  
AINHOA EZEIZA, JAVIER ENCINA
- 267 Ahozko euskararen erabilera eskolan: gako zenbait irakasleen prestakuntzarako  
INES M. GARCIA-AZKOAGA, OLATZ BENGOETXEA, JOSUNE ZABALA
- 283 El corónimo navarro *Salazar / Zaraitzu*: origen y desarrollo de su doble  
denominación  
ROBERTO GONZÁLEZ DE VIÑASPRE
- 295 *Fontes Linguae Vasconum*: orígenes y documentos para una Historia  
del Euskara  
JOAQUÍN GORROCHATAGUI
- 315 Euskal literatura itzuliaren historiografia bateraturantz  
MIREN IBARLUZEA SANTISTEBAN
- 329 Basque among the world's languages: a typological approach  
IVÁN IGARTUA
- 351 Familias vascohablantes: propuesta de definición desde la socialización  
lingüística  
PAULA KASARES
- 363 Formation linguistique de basque aux enseignants, pour un enseignement  
bilingue à parité horaire au Pays Basque Nord  
BEÑAT LASCANO
- 375 Eñaut Etxamendiren obra narratiboaren ekarpena euskal poetika erruralari  
ITZIAR MADINA
- 391 Erdaretarako literatur itzulpena: zeharkako eta zuzeneko itzulpenaren arteko  
muga lausoa  
ELIZABETE MANTEROLA AGIRREZABALAGA

- 405 Ahozko euskararen irakaskuntzarako irakasleen prestakuntza:  
berrikuntza didaktikoa eta soziala?  
IBON MANTEROLA
- 421 Enkarterriko PI-(h)aran/(h)uri motako euskal toponimoak  
MIKEL MARTÍNEZ ARETA
- 437 Diachronical hypotheses accounting for synchronic variation:  
the case of the Basque particle *ote*  
SERGIO MONFORTE
- 453 Jardueraren azterketa irakasleak prestatzeko bide: debatearen  
ikas-irakaskuntzaren adibidea  
AROA MURCIANO EIZAGUIRRE, ARANTZA OZAETA ELORTZA
- 467 Hausnarketa zenbait euskal literatura-ikerketetz  
MARI JOSE OLAZIREGI
- 485 Ahozko euskara *Kolegioko ikastresna* ikasmaterialean  
ARGIA OLÇOMENDY
- 501 Euskararen postposizioak  
JAVIER ORMAZABAL
- 517 Hitz-ordenaren eragina zenbait ezaugarri gramatikalen  
erabilera-maiztasunean  
LUIS PASTOR
- 533 Differential D-marking on proper names? A cross-linguistic study  
IKER SALABERRI
- 547 Externalization and morphosyntactic parameters in Basque  
HISAO TOKIZAKI
- 561 XIX. mendeko Debagoieneko testuez zenbait argitasun:  
egiletasuna eta iturriak  
OXEL URIBE-ETXEBARRIA
- 579 Euskarazko perpausik gabeko azpikonparazioak  
LAURA VELA-PLO
- 595 Latinaren aurreko osagai indoeuroparra Euskal Herriko toponimian:  
bukaeran -(iz)amo duten leku-izenak  
LUIS MARI ZALDUA

**Izenburua/Título:**

Fontes Linguae Vasconum 50 urte. Ekarpen berriak euskararen ikerketari/Nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca

**© Argitaratzaileak/Editores:**

Ekaitz Santazilia, Dorota Krajewska, Eneko Zuloaga, Borja Ariztimuño

**© Egileak/Autores:**

Itziar Aduriz, Jose Mari Arriola, Luzia Alberro, K. Josu Bijuesca, Estibaliz Amorrortu, Ane Ortega, Jone Goirigolzarri, Alexander Artzelus Muxika, Mikel Ayerbe Sudupe, Goio Bañales, Mikel Gorrotxategi, Iñigo Beitia, Garbiñe Bereziartua Etxeberria, Beñat Muguruza Aseginolaza, Lyle Richard Campbell, Bruno Camus Bergareche, Sara Gómez Seibane, Denis Creissels, Céline Mounole, Leire Diaz de Gereñu Lasaga, Itziar Idiazabal Gorrotxategi, Luis Mari Larringan Aranzabal, Amaia Elizalde Estenaga, Arantzazu Elordieta, Ainara Estarrona, Izaskun Etxeberria, Ricardo Etxepare, Manuel Padilla-Moyano, Ander Soraluze, Ainhoa Ezeiza, Javier Encina, Ines M. Garcia-Azkoaga, Olatz Bengoetxea, Josune Zabala, Roberto González de Viñaspre, Joaquín Gorrochategui, Miren Ibarluzea Santisteban, Iván Igartua, Paula Kasares, Beñat Lascano, Itziar Madina, Elizabete Manterola Agirrezabalaga, Ibon Manterola, Mikel Martínez Areta, Sergio Monforte, Aroa Murciano Eizaguirre, Arantza Ozaeta Elortza, Mari Jose Olaziregi, Argia Olçomendy, Javier Ormazabal, Luis Pastor, Iker Salaberri, Hisao Tokizaki, Oxel Uribe-Etxebarria, Laura Vela-Plo, Luis Mari Zaldua

**© Argitaratzailea/Edita:**

Nafarroako Gobernua/Gobierno de Navarra

Kultura eta Kirol Departamentua/Departamento de Cultura y Deporte

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia/Dirección General de Cultura-Institución Príncipe de Viana

Lanak adituek berrikusi dituzte, itsu bikoitzeko sistemaren bidez/Los trabajos han sido revisados por pares doble ciego.

**Diseinua eta maketazioa/Diseño y maquetación:**

Kö estudio

**Imprimaketa/Impresión:**

Linegrafic

ISBN: 978-84-235-3561-3

LG/DL: NA 1438-2020

**Sustapena eta banaketa/Promoción y distribución:**

Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Funtsa/Fondo de Publicaciones del Gobierno de Navarra

Navas de Tolosa, 21

31002 Iruña/Pamplona

Tel.: 848 427 121

fondo.publicaciones@navarra.es

<https://publicaciones.navarra.es>

# Fontes Linguae Vasconum 50 urte.

2019an 50 urte egin zituen Nafarroako Gobernuaren Vianako Printzea Erakundeak argitaratzen duen *Fontes Linguae Vasconum: studia et documenta* euskal hizkuntzalaritzako aldizkariak.

Horren gorazarre, liburu honek gaur egungo euskal hizkuntzalaritza- eta literatura-ikerketan zertan den erakutsi nahi du. Eskarmentu handiko ikertzaileek eta belaunaldi berriek bat egin dute argitalpen honetan, besteak beste, dialektologia, hizkuntzaren didaktika, filologia, gramatika teorikoa, hizkuntz tipologia, hizkuntzalaritza historikoa, itzulpengintza, literatura, onomastika eta soziolinguistika hizpide dituztela.

---

La revista de lingüística vasca *Fontes Linguae Vasconum: studia et documenta*, publicada por la Institución Príncipe de Viana del Gobierno de Navarra, cumplió 50 años en 2019.

En homenaje de la efemérides, este libro pretende dar cuenta del estado actual de la investigación en lingüística y literatura vascas. Investigadores de gran trayectoria y nuevas generaciones se reúnen en esta publicación para tratar, entre otros temas, sobre dialectología, didáctica de la lengua, filología, gramática teórica, tipología lingüística, lingüística histórica, traducción, literatura, onomástica y sociolingüística.

ISBN: 978-84-235-3561-3



9 788423 535613